

Malda behera

Euskaldunon Egunkaria, 1996-04-07: 3.

Urtez aurrera goazenok badugu beti zer kontak; onik ere, batzutan. Aberri Eguna mitikoa, benetakoa izan zen, neronek bizi izan nuen bigarrena Donostiako Atotxa zelaian, Andoaingo Dantzari Txiki taldearekin (1933). Orduan ez genuen batasun arazorik. Denok ginen katekumeno fededunak. Harrez gero, beste bi ospatu genituen (1934-35), Errepublikako bake laburrean, hurrengo gerrateko odol minetan (1937), eta fedez betetako anitz gero espetxeetan, Francoren menpe larrietan, exilioetan eta erresistentzia armatuan ere. Baina laster hasi ginen larriki bakantzen, bakoitza berean. Gogoan dut batez ere 1975ean Iparraldean Aberri Eguna elkarrekin ospatzeko ahalegin finko bat, alferrik. Abertzale deitzen garenok zatiketaren gaitzak jota bizi gara munduan zehar hitzez eta ekintzaz garraztuak. Taifa mundutxoetan harrotuak batzutan. Gure artean ebakitzen ari garen lurak leizeak bihurtzen ari zaizkigu, ordea... Ezin dut sinetsi, halere. Euskal herriaren hutsarteko gabezia honek irentsiko gaituenik; geratzen zaizkigun leaderrek esnatu behar dute bere erantzukizunetara, idiak gurdien aurrean jarri eta Europako berriztatze lanetan aberri euskaldun aske eta demokratikoa erditzea lortzeko.